

5. KANALAK



Gure aplikazioa “Play Store”-n eta “App Store”-n eskuragarri egongo da eta guztiz doakoa izango da.

Sustapena:

Publizitatea erabiliko dugu, produktuaren ezaugarriei buruz informatzeko. Produktua bezeroengana heltzeko iragarkiak jarriko ditugu interneteko hainbat leku desberdinetan. Getxoko Denden Elkarteak publizitatea egingo digu, haiei onura egiten dietelako. Azkenik Getxoko udalak bere web orrian gure zerbitzuari buruzko informazioa emango du.

Berezko kanala erabiliko dugu; gu bostok prest gaude erabiltzaileen arazoak konpontzeko eta zalantzak argitzeko. Kanal laburra izango da; aplikazio bat denez, ez dira bitartekaririk egongo.

Erosketa eta entrega:

Gure aplikazioa interneten eskuragarri egongo da eta guztiz doakoa izango da. Aplikazio bat denez, ez dago entregarik. Deskargatzen duzun momentuan zure gailuan gordetzen da.

Salmenta ondorengoa eta ebaluazioa:

Aplikazioa probatu ondoren, bezeroek balorazioa egiteko aukera izango dute interneten. Balorazioa bi modutan egin daiteke: izarren bidez eta iruzkin bat idatziz. Zerbitzu hau Play Storek eta App Storek eskaintzen dute eta ez da derrigorrezkoa.



App Store



Google™ play